ZIRKULAZIOKO ERREGELAMENDU OROKORRA EGUNERATZEA, ERABILTZAILE KALTEBEREN BABESA HOBETZEKO.

ALDAKETA NAGUSIAK

Gidabaimenak Euskaraz

1 MOTOZIKLETAK ETA ZIKLOMOTORRAK (GIDARIAK ETA BIDAIARIAK)

- Nahitaezko eskularruak hiriarteko bideetan
  Arau-hauste larria: 200€.
- Oinetako itxiak, nahitaezkoak bide mota guztietan.
  Arau-hauste larria: 200€.
- Nahitaezko kasko homologatuak (ez soilik ziurtatuak).
- Ridersak (erabilera profesionala): txaleko islatzailea beti. **Arau-hauste larria: 200€.**

MOTORRAK BAKARRIK

Eskuineko bazterbidetik zirkulatu ahal izango da buxaduretan, gehienez 30km/h, eta seinaleztatuta badago. Txaleko islatzailea, nahitaezko dotazio gisa.

2 TXIRRINDULARIAK

HIRIARTEKO BIDEAK

- Hiriarteko bideetan kaskoa nahitaezkoa. Salbuespenak kentzen dira.
- Riderrek (erabilera profesionala): kaskoa eta txaleko islatzailea, beti.
  Arau-hauste larria: 200€.
- Arau-hauste larria:
  - 200 €. Hiriarteko bidean aurreratzean: 20 km/h murriztu mugarekiko.
  - 1,5 m-ko albo-tartea utzi eta erreiz aldatu.

HIRI BARRUKO BIDEAK

- Ahal dela, erreiaren erdialdetik zirkulatu.
- Aurreko txirrindulariarekiko 5 m-ko tartea utzi.
- 30 km/h-ko edo gutxiagoko muga duten errei bakarreko kaleetan, bi noranzkoetan zirkulatu ahal izango da (seinaleztatuta badago).

3 MUGIKORTASUN PERTSONALEKO IBILGAILUAK (MPI)

- 15+ Gutxieneko adina: 15 urte.
- Kaskoa nahitaezko beti.
- Gauez edo ikuspen gutxi dagoenean, nahitaezkoa da argi-emailea edo islatzailea (150 m).
- Argiak beti piztuta.
- Herritik kanpo eta hiriko tuneletan: bizikleta-bideetan edo bidegorrietan.
- Utzi 5 m-ko tartea aurreko MPlarekiko.
- Besoa beti erabili, egin behar dituzun maniobrez ohartarazteko.
- Riderrak (erabilera profesionala): kaskoa eta txaleko islatzailea, beti.
- Kaskorik, argirik edo islatzailerik ez eramatea: **arau-hauste larria: 200€.**

4 LARRIALDIETAKO ETA ELURRAZ ZIRKULATZEKO ERREIA

LARRIALDIETAKO ERREIA

auto-ilarak badaude edo ibilgailuak gelditu egiten badira, baztertu eta larrialdietako ibilgailuak pasatzeko lekua utzi.



ELURRAZ ZIRKULATZEA

Autobide eta autobietan, debekatuta dago aurreratzea. Ezkerreko erreia libre utzi behar da larrialdietarako eta elurra kentzeko.

5 SEGURTASUN-UHALA

Nahitaezkoa bidaiari guztientzat, salbuespenik gabe (taxiak, salgaien ibilgailuak eta autoeskolak barne).

SALBUESPENA

Anbulantzia asistentzialetako bidaiariak, larrialdi-zerbitzuan pazientearen bidaiari-tokian doazenean.

6 SEMAFOROAK OINEZKOEN PASABIDEETAN

Arau orokor gisa, ibilgailuetarako argi hori keinukaria ezin izango da bat etorri oinezkoentzako argi berdearekin.

7 ESKOLA-BIDE SEGURUAK

Haurrak oinez, garraio publikoan edo motorrik gabeko garraiobideetan joan daitezen egokitutako bide-multzoa arautu da.

8 AUTOKARABANAK

Ibilgailuaren perimetrotik irteten diren elementuak zabaldu gabe aparkatzea.

Pneumatikoen, altxagarrien edo falken gainean baino ez dute atseden hartu behar, eta ez dute jariakinik isuri behar.

9 BESTE BATZUK: HERRI BARRUAN

30 km/h-ko edo gutxiagoko muga duten errei bakarreko kaleetan (seinaleztatuta badago), bi noranzkoetan zirkulatu ahal izango da, bizikletetan eta MPletan.

2026KO URRIAREN 1EAN INDARREAN SARTUKO DIRA

Nahitaezko argiak MPletan eta ziklomotorretarako kasko homologatua, 2027ko urriaren 1ean.

MUGIKORTASUN PERTSONALEKO IBILGAILUEN (MPI) GIDARIAK

- MPI bat gidatzeko gutxieneko adina **15 urte** da.
- **Babes-kasko** homologatua edo ziurtatua erabili beharko dute.
- **Gauez** edo **ikuspena nabarmen gutxitzen** duten meteorologia- edo ingurune-baldintzetan, gutxienez **elementu argitsu edo islatzaile bat** erabili beharko dute, gutxienez 150 metrora ikusteko modukoa.
- MPIetan zirkulatzen duten **profesionalek** (riderrek) **txaleko islatzailea** erabili beharko dute une oro.
- **Argiak piztuta** eraman beharko dituzte beti. (2027ko urriaren 1ean sartuko da indarrean)
- **Hiriguneetatik eta hiri-tuneletatik kanpo**, ibilgailu motordunen bide bereizietatik (adibidez, bizikleta-bideak edo bizikleta-erreiak) ibil daitezke MPIak.
- Ibilgailu motordunen gidariek **gutxienez 5 metroko tartea** utzi behar dute errei berean aurrean doazen MPIekiko.
- **Mugikortasun murriztua** duten pertsonak, pertsonen pausuan mugitzen badira MPIan, **oinezkotzat** hartuko dira.
- MPIen gidariek **besoa erabili** beharko dute beti gainerako bide-erabiltzaileak egin beharreko maniobrez **ohartarazteko**.

TXIRRINDULARIAK

- **Kendu egiten dira txirrindulariek babes-kaskoa erabiltzeko salbuespenak**, **goranzko arrapala luzeetan**, **arrazoi medikoengatik** edo **muturreko bero-baldintzetan zirkulatzean**. Beraz, txirrindulari guztiek eta, hala badagokio, bidaiariek babes-kasko homologatua edo ziurtatua eraman beharko dute, behar bezala lotuta, hiriarteko bideetan, eta 16 urtetik beherakoek, beti, edozein bide-motatan.
- Ibilgailu honekin **lan egiten duten txirrindulariek** (riderrek) **babes-kaskoa eta txaleko islatzailea** erabili beharko dute beti. Bi horiek ez eramatea arau-hauste astuna da, eta 200 euroko isuna dauka.
- **Bizikletak paraleloan** zirkulatzeari buruzko egungo araudia argitzen da. Hala, berariaz ezartzen da bizikletek biko zutabean zirkula dezaketela bazterbidetik, eta bazterbiderik ez badago edo ibiltzeko nahikoa ez bada, galtzadaren ezinbesteko zatitik ere zirkulatu ahal izango dute, baina, azken kasu horretan, **ilaran jarri** beharko dira honako inguruabar hauek gertatzen direnean:
  - **Ikuspenik gabeko bide-tarteetan**.
  - zirkulazioaren **arintasunari eragiten diotenean**,
  - **eguzkia sartzen denetik irten bitartean** zirkulatzen dutenean, edo
  - **Ikuspena nabarmen murrizten** duten meteorologia- edo ingurune-baldintzetan.
- **Debekatuta dago txirrindulariak espaloietatik joatea**, 12 urtetik beherakoak izan ezik, udal-agintaritzak hala ezartzen duenean eta oinez doan heldu baten ardurapean doazenean.
- **Hiriarteko bide batean txirrindulari bat aurreratzen** ari den gidariak gutxienez **20 km/h-ko abiadura murriztu** behar du bideko mugarekiko.
- Noranzko bakoitzeko **errei bat baino gehiago duten galtzadetan**, aurreratzen ari den gidariak erreia erabat aldatu behar du, eta 1,5 metroko alboko tartea utzi behar du.

Hiri barruko bideetan (arau hauek txirrindulariei eta MPI gidariei aplikatzen zaizkie):

- Ahal dela, **erreiaren erdialdetik** zirkulatuko dute, segurtasuna hobetzeko.
- **Beste ibilgailu batzuk aurreratu ahal izango dituzte eskuinetik edo ezkerretik**, haien segurtasunerako komenigarriena denaren arabera.
- **Semaforoz arututako bidegurutzeetan eta auto-ilaretan**, geldituta dauden ibilgailuak aurreratu ahal izango dituzte itxarote eremuetan jartzeko.
- Ibilgailu motordunen gidariek **gutxienez 5 metroko tartea** utzi behar dute errei berean aurrean doazen txirrindulariekiko.
- **Abiadura 30 km/h-ra edo gutxiagora mugatuta dagoen errei bakarreko bideetan**, eta **aldez aurretik seinaleztatuta**, udal-agintariek bizikleten **zirkulazioa** baimendu ahal izango dute zirkulazioaren **bi noranzkoetan**.

Bizikleten eta gainerako zikloen zirkulazioari buruzko beste arau batzuk:

- Zikloetarako, oro har, eta bizikletetarako, bereziki, ibilgailu horien **masaren % 50 ez gainditzeko muga kendu** da, **atoia edo erdi-atoia** herrestan eramateko.
- Bizikletetan, **zama eta bidaiariak** garraiatu ahal izango dira **gidaria adinez nagusia bada**, eta ezin izango dute arrastatu, guztiz edo partzialki erori edo modu arriskutsuan mugitu, ibilgailuaren egonkortasuna kolokan jarri edo argiztatzeko edo seinaleztapen optikoko gailuak ezkutatu.
- Bizikletetan eta gainerako zikloetan, **atoiak, erdi-atoiak edo beste elementu batzuk** erabili ahal izango dira (Barne Arazoetako Ministerioaren titularraren aginduz ezarritako espezifikazio teknikoak betetzen dituztenak) **pertsonak, 15 kg arteko abereak edo zama-abereak herri barruko bideetan garraiatzeko**.
- **Adingabeak bizikletaz** eta fabrikazioz pertsona batek baino gehiagok okupatu ezin dituzten zikloetan garraiatzeko aukera mantentzen da, baina honako baldintza hauek ezartzen dira:
  - Adinaren erreferentzia (7 urtetik beherakoa) **22 kg arteko** pisuarekin ordeztu da.
  - Adingabeek gai izan behar dute **beren kabuz esertzeko** eserleku gehigarrietan.
  - **Eserleku** gehigarri **homologatuetan**.
- Aurreko apartatuetako arauak bizikletan eta **hiriarteko bideetako** gainerako zikloetan zirkulatzeari ere aplikatuko zaizkio, **egunez** eta ikuspena gutxitzen ez duten baldintzetan bada.

ZIKLOMOTORREN ETA MOTOZIKLETEN ERABILTZAILEAK

- Nahitaezkoa da **babes-eskularruak** erabiltzea **motozikleten eta ziklomotorren** gidari eta bidaiarientzat, **hiriarteko bideetan**, bai eta **oinetako itxiak ere, bide-mota guztietan**. Bi arau-hausteak larriak dira, eta 200 euroko isuna dute.
- **Motozikletek eskuineko bazterbidetik** zirkulatu ahal izango dute auto-ilarak daudenean, **30 km/h-ko** abiadura gainditu gabe eta **bide-zatia seinaleztatu ondoren**.
- **Ziklomotorren erabiltzaileen babes-kaskoek homologatuta** egon beharko dute nahitaez, eta ez soilik ziurtatuta. (2027ko urriaren 1ean sartuko da indarrean)
- **Ziklomotorrek** galtzadan sartu gabe **bazterbidetik biko zutabean** zirkulatu ahal izateko **aukera kentzen da**.
- **Beren lanbide-jarduera motozikletan, 3 gurpileko ibilgailuetan, kuatrizikloetan eta ziklomotorretan** egiten duten riderrek **txaleko islatzailea** eraman beharko dute une oro. Arau-hauste astuna da, eta 200 euroko zehapen ekonomikoa du.
- Motozikleten gidariek **ibilgailuan ikuspen handiko txaleko islatzailea eraman behar dute.** Txaleko hori ibilgailutik jaisten direnean eta hiriarteko bideetan galtzadan edo bazterbidean daudenean erabili beharko dituzte.

BABES-EKIPAMENDUA

- **Kendu egin dira taxi-gidarien, salgaien ibilgailuen eta gidatzen irakasteko ibilgailuen segurtasun-uhala erabiltzeko salbuespenak**. Hemendik aurrera, une oro eraman beharko dute jarrita.
- **Haurrak lotzeko sistema erabili gabe 135 cm-ra iristen ez diren pertsonak taxian garraiatzeko salbuespena mantentzen da,** betiere atzeko eserlekuan badoaz.
- **Salbuespen bat** ezartzen da, larrialdi-zerbitzuan pazientearen tokia okupatzen dutenean, **ibilbidean laguntza tekniko-sanitarioa emateko egokitutako anbulantzia asistentzialetako bidaiariak babesteko**.
- **Arrazoi mediko larriengatik** ziurtagiria duten pertsonak **babes-kaskoa erabiltzetik salbuestea kendu da**, uste baita babes-elementu hori erabiltzea ezinbestekoa dela haien segurtasuna babesteko.

HIRIARTEKO BIDEETAKO BESTE ARAU BATZUK

- Beste ibilgetu batzuk **gainditzen dituzten ibilgailuek**, dela istripuagatik, matxuragatik, laguntza-lanengatik, mantentze-lanengatik edo trafikoa erregulatzeagatik, **1,5 metroko** albo-tartea utzi behar dute, eta abiadura bideko mugatik **gutxienez 20 kilometro orduko murriztu** behar dute.
- **Autobide eta autobietan**, **elurra** dela-eta zirkulazioa oztopatzen bada, **debekatuta dago aurreratzea**, eta **eskuineko erreitik** baino ez da zirkulatuko. Ezkerreko erreia libre utziko da larrialdietako eta elurra kentzeko ibilgailuen zirkulaziorako.

- **Auto-ilara baten ondorioz ibilgailuak oinezkoen pausuan zirkulatzen ari direnean edo gelditzen direnean**, baztertu egin beharko dira, eta erdiko espazio bat libre utzi beharko dute, polizia-ibilgailuak eta gainerako larrialdi-zerbitzuak pasatzen uzteko. Espazio horri **«larrialdietako erreia»** esaten zaio.
- **Autobusetan bidaiariek zutik bidaiatzen badute edo segurtasun-uhalik ez badute**, **herritik kanpoko edozein bide-motatan gehieneko abiadura 80 km/h-koa** izango da, eta ez ohiko bideetan bakarrik, orain arte adierazi den bezala.

HIRI BARRUKO BIDEETAKO BESTE ARAU BATZUK

- Semaforoa duten oinezkoen pasabideetan, arau orokor gisa, **ibilgailuen argi hori keinukariak ezin izango du bat etorri oinezkoentzako argi berdearekin**.
- Nortasun juridikoa ematen zaie **eskola-bide** seguruei, eta honela definitzen da: agintaritza eskudunak egokitutako bideen multzoa, haurrak ikastetxeetara oinez, garraio publikoan edo motorrik gabeko mugikortasun-bitartekoak erabiliz joan daitezen.
- **Autokarabanak aparkatzeko** maniobra arautu da. Autokarabanek ezin izango dute ibilgailuaren perimetroa gainditzen duten elementu propiorik zabaldu, oinplanoko proiekzioa kontuan hartuta, pneumatikoen gainean bakarrik atseden hartu beharko dute, eta ezin izango dute bidaiari-lekutik jariakinik isuri.

OHI ERREIAK

- OHI erreia erabili ahal izango da, bai ibilgailuak **V-15** seinalea badu, bai **mugikortasun urriko desgaitasuna duten pertsonentzako ibilgailu automobilak aparkatzeko txartela** badu.
- Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak (**MPI**) OHI erreietatik **zirkulatzea debekatuta** duten ibilgailu gisa sartzen dira.

AURRERATZEAK

- **Herritik kanpo, oinezkoak, animaliak, animaliek tiratutako ibilgailuak, ziklomotorrak, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak, txirrindulariak edo txirrindulari-taldeak aurreratzean, abiadura gutxienez 20 km/h murrizteko betebeharra** sartzen da, bai maniobra hasi aurretik, bai maniobra egiten den bitartean, aurreratutako erabiltzaileek egonkortasuna eta segurtasuna arriskuan ez jartzea bermatzeko.
- Aurreko paragrafoan aurreikusitako bide-erabiltzaileak aurreratzeko, bide-mota guztietan, galtzadaren ondoko edo kontrako erreiaren zati bat edo osoa okupatu behar da, **gutxienez 1,5 metroko** segurtasun-zabalera gordez, eta galtzadak noranzko bakoitzeko errei bat baino gehiago duenean, **nahitaezkoa izango da erreiz erabat aldatzea**.
- **MPI**ak eta **nekazaritzako ibilgailu bereziak eta haien multzoak**, aurreratu daitezkeen ibilgailuen artean sartzen dira, nahiz eta maniobra hori debekatuta egon.

IBILGETUTAKO IBILGAILUAK

- Matxura edo istripu baten ondorioz, larrialdi-zerbitzu bat egiteagatik, bide publikoetan laguntza emateagatik, bideko instalazioak eta azpiegiturak mantentzeagatik edo trafikoa arautzeko, antolatzeko eta kudeatzeko funtzioengatik **ibilgetuta dauden** eta, osorik edo zati batean, martxaren noranzkoko erreian galtzada okupatzen duten ibilgailuen kasuan, **gainditu ahal izango dira baldin eta 1,5 metroko albo-tartea uzten** bada, nahiz eta kontrako noranzkorako galtzada-zatia okupatu behar izan, **eta abiadura 20 km/h murrizten bada bidean** dagoen mugarekiko.

TRAFIKOARI BURUZKO LEGEAREN I. ERANSKINAREN ALDAKETAK

Kontzeptu hauek aldatu dira:

- **Ohiko gidaria:** jatorrizko definizioari ohiko gidari bat izendatzeko betebeharra gehitzeko, gidatzeko administrazio-baimenik ez duen pertsona fisiko batek ibilgailu bat matrikulatzen duenean.
- **Oinezkoentzako gunea:** honela definitzen da: "kalearen zati bat, goratua edo beste era batera mugatua, oinezkoen lehentasunezko pasabide eta egonaldietarako erreserbatua. Definizio honetan espaloiak, plazak, bulebarrak, pasealekuak, nasak eta antzeko eremuak sartzen dira ".
- **Bizikleta-bidea, bizikleta-erreia, babestutako bizikleta-erreia eta bizikleta-espaloia:** zikloak ez diren beste ibilgailu batzuek bide horietatik zirkulatzeko aukera sartzeko, baldin eta trafikoa arautzeko, antolatzeko eta kudeatzeko eskumena duen agintaritzak baimentzen badu, hala nola mugikortasun pertsonaleko ibilgailuek.

Kontzeptu berriak sartu dira:

- **Galtzada eta espaloirako plataforma bakarra duen gunea:** oinezkoen joan-etorria errazteko bereziki diseinatutako eta egokitutako gunea. Bertan, oinezkoak pasatzeko lehentasuna du, galtzadako edozein puntutan. Eremu horietan, seinale horizontalak eta bertikalak ahalik eta gehien murrizten dira.
- **Bizitegi-lehentasuneko eremua edo gunea:** udal-agintariek mugatutako eta arututako eremua da. Eremu horretan, erabilera jasangarriari eusteko, bizilagun ez-egoiliarren ibilgailuetarako sarbidea edo zirkulazioa mugatzeko neurriak sartzen dira, bai eta erabilera hori erraztuko duten beste neurri batzuk ere
- **Eskola-bide segurua:** Haurrak oinez, garraio publikoan edo motorrik gabeko mugikortasun-bitartekoak erabiliz ikastetxeetara joatea errazteko agintaritza eskudunak egokitutako bide-multzoa. Seinaleak, bide-markak edo informazio-panelak ezarri ahal izango dira, bai eta abiadura-muga espezifikoak eta ibilgailu motordunentzako murrizketak ere.
- **Bideko erabiltzaile kalteberak edo zaurgarritasun-arrisku handiena dutenak:** erabiltzen duten joan-etorriagatik edo beren adin-taldearen ezaugarri fisikoengatik zirkulazio-istripuetan lesioak izateko arrisku handiagoa duen edo lesio larriagoak izateko arrisku handiagoa duen bide-erabiltzailea. Barne hartzen ditu oinezkoak eta, horien barruan, desgaitasuna duten pertsonak, adingabeak, adinekoak, mugikortasun murriztua dutenak, txirrindulariak, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen gidariak eta motozikleten eta ziklomotorren gidariak eta bidaiariak.

ALDAKETAK IBILGAILUEN ERREGELAMENDU OROKORREAN

- Ikuspen handiko **txaleko islatzailea motozikletentzat nahitaezkotzat sartzen da**.

Gidabaimenen eta gidalizentzien baliozkotasun-epea

BAIMENAK ETA LIZENTZIAK	BERRITZEA	BALDINTZAK
AM, **A1, A2, A,** B eta B+E LCM eta LVA.	**10 urtean behin**	Titularrak 65 urte baino gutxiago dituen bitartean.
	5 urtean behin	Titularrak 65 urte betetzen dituenetik aurrera.

Osasun-azterketaren ziurtagiria (psikoteknikoa)

Baimendutako zentroek gidarien osasun-azterketa (nahitaezkoa) egiten dute, eta, **ziurtagiri** baten bidez, **gidariak gidatu ahal izateko gaitasun psikofisikoak** dituela egiaztatzen dute. Horien arabera, gidabaimenak arruntak edo ezohikoak izan daitezke..

Puntukako baimena

Helburua berriro heztea da, gidariak sentsibilizatzeko eta berrezteko ikastaroak eginez gidari arau-hausleen jokabidea zuzentzeko.

12 PUNTU

Hasierako esleipen orokorra.

8 PUNTU

Honako hauek lortzen dituzten gidari titularrak izan ezik:
- **Gidabaimen edo gidalizentzia bat lehen aldiz.**
- **Baimena edo lizentzia berriro ere, puntu-esleipen osoa galdu ondoren.**

Bi kasu horietan, bi urte pasatzen badira puntuak kentzen dituen arau-hausterik egin gabe, **12 puntu** izatera pasatuko dira.

HOBARIA

Puntuak kentzen dituen arau-hausterik egiten ez duten gidariak saritzeko.

8 PUNTU → **2 urte** puntuak kentzen dituen arau-hausterik egin gabe. → 12 PUNTU → **3 urte** puntuak kentzen dituen arau-hausterik egin gabe. → 14 PUNTU → **3 urte** puntuak kentzen dituen arau-hausterik egin gabe. → 15 PUNTU

Puntuak partzialki edo guztiz berreskuratzea

Puntuak **partzialki berreskuratzeko bi modu** daude:

- Gehienez **4 puntu**, bi urtean behin, **10 orduko ikastaro** baten bidez. (Gidari profesionalek urtean behin).
- Puntuak berreskuratuko dira, baldin eta **bi urtean ez bada puntuak kentzen dituen arau-hausterik egin**, arau-hauste astunak edo oso astunak diren kontuan hartu gabe.
- **Puntu guztiak** berreskuratzeko, **20 orduko ikastaro** bat egin behar da, eta azterketa bat gainditu. Puntuak galdu direnetik gutxienez denbora hau igaro behar da:
  - **6 hilabete** (12 hilabete, puntu guztiak baimena berriro lortu ondorengo hiru urteetan galtzen badira).
  - **3 hilabete**, gidari profesionalentzat. (6 hilabete, berriro lortu ondorengo hiru urteetan berriz ere puntu guztiak galtzen badira).

Baldin eta, epai judizial bidez, baimena kentzea agintzen bada, baimen hori 24 orduko ikastaro bat eginez berreskuratu ahal izango da: epaia baino lehen zeukan saldoarekin, azterketa egin beharrik izan gabe (bi urtera arte gabetzean), edo 8 puntuko saldoarekin, azterketa bat gainditu ondoren (bi urte baino gehiagorako gabetzean).